

Subdelegación del Gobierno  
Pio XII plaza  
DONOSTIA

Udalbatzak 2017ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, ondorengo hau erabaki zuela jakinarazten dizuet:

“Herri-Onurako Adierazpena eta Euskal Herriko Erkidego Autonomoan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintzietan «Gueñes - Itsaso» deituriko, 400 kwrako energia elektrikoa garraiatzeko aireko linearen, zirkuitu bikoitza, Eraikuntzako Baimen Administratiboko eskaerak” dokumentua jendaurrean jarri duela Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztako Industria eta Energia bulego probintzialak eta besteak beste iragarkia otsailaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela eta hogeita hamar eguneko alegazioetarako epea ireki du.

Udal arkitektoak eta Udaleko ingurumen teknikariak gaiaren inguruko txostenak egin dituzte.

Udal arkitektoaren eta Udaleko ingurumen teknikariaren txostenei eta Lurralde Antolamenduko batzordearen proposamenari jarraituz, Udalbatza osatzen duten 17 udalkideek, aho batez, honako hau erabaki dute:

A.- “Herri-Onurako Adierazpena eta Euskal Herriko Erkidego Autonomoan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintzietan «Gueñes - Itsaso» deituriko, 400 kwrako energia elektrikoa garraiatzeko aireko linearen, zirkuitu bikoitza, Eraikuntzako Baimen Administratiboko eskaerak” proiektuari ondorengo alegazioak jartzea, proiektua hobetzeko eta bere exekuzioak inguruan eragin txikiena izateko helburuarekin:

- 1.- Proiektuak proposatzen du aireko linean Pagola-Loidi gaineko eremutik pasatzea (48-50 alineazioak, T106, T107, T108 dorreak). Eremu hau da natura aldetik Bergarak duen eremu interesgarrienetako bat; hemen azpiegitura berriak zeharkatu egiten du EAEko Korridore Ekologikoen Sareko Urkiola/Aizkorri-Aratz/Izarraitz lotura-korridorea eta, horrenbestez, ulertzen da eragin hori ebaluatu eta murriztu egin beharko litzatekeela. Era berean, hegazti babestuek azpiegitura berriarekin talka-arriskua izan dezakete, non ohikoa den hegazti harraparien hegaldia. Hirigunetik dagoen perspektibari erreparatzen badiogu, inguru hori mendigain bat da eta, 2009ko aurreproiektuaren hasierako dokumentuan (72. or.) esaten den bezala, *“en la distribución de apoyos se evitan las cumbres ...”*.
- 2.- Proiektuan jasotako proposamena aukeratuz gero, horrek inpaktu zuzena eta nabarmena sortuko luke landa-lurreko hainbat etxe isolatutan (baserrian); esate baterako, Basalgo auzoko Oianguren, Eguren eta Belastegi-Bolu baserrietan, Osintxu auzoko Biturtu baserrian, edo Buruñao auzoko Laudatz eta Mieka baserrietan, besteak beste.

Horrenbestez, eskatzen da T-104 eta T-107 dorreen arteko trazatua aldatzea eta hori gauzatu dadila aurretik dagoen Amorebieta-Itxaso izeneko 400 kV-ko lineatik gertu eta paralelo, linea horren hego-mendebaldeko aldetik; horrela, saihestu egingo litzateke egungo trazatuaren ibilbidean dauden baserriei eta granjari eragingo litzatekeen kaltea (honekin batera doan planoan jasota dator alegazio-proposamena xehetasunez).

- 3.- Berretsi egiten da 2011ko martxoaren 28an Udaltzatzen erabakiz onartutako alegazio-akordioaren bigarren puntua: *“El Area A-43 corresponde a los terrenos ocupados anteriormente por la industria textil Hijos de Arturo Narvaiza en el Barrio de Mekolalde con la incorporación de otras parcelas situadas en la zona Norte del Area. En la UE 43-2 consolidada como suelo urbano se ordenan unos volúmenes y se reserva suelo para el paso del futuro tranvía. La línea Gueñes-Itxaso de doble circuito afecta seriamente a la futura construcción de edificios e instalaciones industriales, condicionando en gran medida el desarrollo industrial de nuestro municipio.”*, eta adierazten da aipatutako Mekolalde inguru horretan hainbat etxe komunitario daudela, non jendea bizi den, eta horrengan sortuko litzatekeen inpaktua ere zuzena eta nabarmena izango litzateke. Inguruabar hauek kontuan hartuta, berriz ere eskatzen da trazatua berraztertzea eta aurreikusitako proposamen hori hobetuko duen alternatiba bat sortzea.
- 4.- Proiektuak kontuan har ditzala irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak jasotako ezarpenak, eta zehazki 61. artikuluan jasotakoa (Erabileren eta Jardueren Kalifikazioa).
- 5.- Proiektuak xehetasunez zehaztu dezala baldintza guztiak betetzen direla, bai Ingurumen Inpaktuari buruzko Adierazpeneko 5. puntuan (“Proiektuarekiko Baldintzak”) jasotako baldintzei dagokienean (Ingurumen Inpaktuari buruzko Adierazpena 2012ko azaroaren 22ko Ebazpenaren bidez gauzatu zen, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioko Ingurumenerako Estatu Idazkariak emana, eta abenduaren 5ean argitaratu zen BOEn), bai eta bereziki atmosfera, baliabide hidrikoak, lurzoru eta landaketa, fauna eta paisaia babesteko baldintzei dagokienean.
- 6.- Instalazioa eraikitze nahiz mantentzeko egin beharreko sarbideei buruzko aipamena oso laburra da proiektuan, soil-soilik 7. atalean jasotakoa dago (Memoriako 60. orrialdean).

Aipamen horretan bakarrik adierazten dira baldintza orokor-orokor batzuk, oso lausoak, eta sarbideak aukeratzeko irizpide bat. Irizpide horren arabera alternatiba ezberdinen arteko aukeraketa ez da egiten soilik irizpide teknikoen arabera, baizik eta baita ingurumen-irizpideen arabera ere –ingurumenarekiko inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin– eta baita irizpide sozioekonomikoen arabera ere –jabearekiko eragina ere murriztu dadin–.

Proiektua aztertu ondoren, bide berrien trazatuari buruzko informazio bakarra hemen agertzen da: Kapituluak: Ondasun eta Eskubideen Zerrenda - Eranskina: Partzela Planoak - 441L003 planoak – 64. eta 70. arteko orrialdeak (biak barne). Orrialde horietan jasotzen diren trazatuak bi lerro paralelo dira, zabalerak akotatu gabe dutenak, eta lerro bien arteko bilbean honako adierazpena dutenak: *Bide-zortasuna / Sarbidea (“Servidumbre Paso / Acceso”)*. Dirudenez, lehendik dauden bideak erabiltzen dira bide-adar berrien abiapunturaino, hau da, dorreentzat aurreikusitako kokapenera joateko bide berrien hasiera-punturaino. Proiektuan ez dira inongo xehetasun-planotan azaltzen aurreikusitako bide-adar berri horien zabalerak, maldak edo eraikitze-soluzioak, eta ez da inon ere aipatzen ea hobekuntza-lanik egin beharko den edo ez lehendik dauden bideetatik obra egiteko erabiliko diren kamioiak eta makinariak ondo igaro ahal izateko.

Proiektuaren aurrekontuan ez dago inolako partidarik sarbide berriak eraikitzeko, ezta lehendik dauden bideak behar izanez gero hobetzeko ere. Eta ezta exekuzio-fasean eragin daitezkeen kalteak berroneratzeko partidarik ere.

Eroanbide berri honek eragiten dituen eremuak ingurumen aldetik berroneratzeko behar diren neurrei dagokienez, ez da ere proiektuan azaltzen egin beharreko jarduketei buruzko inolako informaziorik, eta aurrekontuan ere ez da inolako partidarik azaltzen kontzeptu horren inguruan. Horrenbestez, eskatzen dugu proiektuan jasota ager dadila, batetik, dorreen kokapenetara joateko eraiki behar diren bide-zati berrien trazatu zehatza –bertan adierazita horien zabalerak, maldak eta eraikuntza-xehetasunak (esate baterako, hormak, harri-lubetak, urak batzeko arekak, zoladura, etab.)– eta, bestetik, jasota ager daitezela halaber lehengo bideetan bide-zati berrien abiapunturaino egin beharreko hobekuntza-lanak. Ildo horretatik eskatzen dugu landa-bide edo baso-bideetatik gertu kokatutako dorre edo euskarrietan, jendea sarri dabilen euskarri-inguruetarako neurriak har daitezela –zapatekin nahiz hanka-hutsik–, hau da, “*apoyo frecuentado calzado/descalzado*” motako neurriak har daitezela.

Azaldutako testuinguru honetan, proposatzen dugu obrak hasi aurretik jarraipen-batzorde bat sortzea, obrak koordinatu eta jarraituko dituen, aldizkako bilerak eginez –obrak hasi aurretik zehaztuko dira–, eta bere garapenean jarraipena egingo dena obrei, obren bilakaerari eta exekuzio-fasean udalerrri barruan sor daitezkeen arazoei.

- 7.- Proiektuaren barruan, plano batzuetan ager dadila zeintzuk diren sute-arrisku handiena duten eremuak, eta horietan zer nolako prebentzio-neurri bereziak ezartzea aurreikusi den.
- 8.- Batez ere, ondorengo intereseko habitatek jasango dute kaltea [Europar Batasunaren Intereseko habitaten azterketarako ohikoa den bezala, kontuan hartu dira Habitaten Zuzentarauak definitutako habitatak (*Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoa*) eta horien kartografia (Bergarako Udalarena berarena, 2008. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak egindakoa, eta Eusko Jaurlaritzarena)]:
  1. Interes komunitarioko 6210 habitata, “Orkideak dituzten belardi lehor erdinaturalak”: 49 eta 50 alineazioetan batez ere. Eraikitze-fasean eta ustiapen-fasean emango da kaltea (lurzoruaren eraldaketa eta okupazioa).
  2. Interes komunitarioko 9120 habitata, pagadi azidofilo atlantikoena, llex-a eta tarteka taxus-a duten oihanpea duena: eragin puntuala, 48 alineazioan.
  3. Halaber, interes natural nabarmena duten harizti-baso atlantiar mixtoak ere eragiten ditu, 44. alineazioan.

Honenbestez, eskatzen da eraikuntza fasean teknikari gaitu bat bertan izatea, flora babestuen gaineko eragina murrizteko, hala komeni bada kontserbaziorako konpentsazio neurriak proposatuko dituelarik.

- 9.- Linea elektrikoak EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean jasotako EAEko korridore ekologikoen sarea zeharkatzen duen eremuan, kableen kontrako hegaztien talka-arriskua murrizteko Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenean jasotako neurriak hartzea eskatzen da, 1432/2008 Errege Dekretuak proposatzen dituen tankerakoak.

10. Nahiz eta proiektuan jaso Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen Kudeaketari buruzko atala, gure ustez atal hori ez da garatu halako dimentsioko dokumentu tekniko batek egin beharko lukeen neurriraino. Horrenbestez, eskatzen dugu proiektuaren exekuzioaz arduratuko den enpresa kontratistari eginarazi diezaiola dagokion Hondakin Kudeaketarako Plana, indarreko berariazko araudia bete beharko duena.

B.- Alegazioak jasotzen dituen erabakia jakinaraztea Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzari.”

Bergara, 2017ko martxoaren 28a

IDAZKARIAK

Les comunico que el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria celebrada el 27 de marzo de 2017, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

“La Delegación de Industria y Energía de la Subdelegación del Gobierno en Gipuzkoa ha sometido a información pública las solicitudes de Declaración de Utilidad Pública y Autorización Administrativa de Construcción de la línea aérea de transporte de energía eléctrica a 400 kV, doble circuito, denominada «Güeñes - Itsaso» en las provincias de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y mediante anuncio publicado entre otros en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 14 de febrero ha abierto un plazo de alegaciones de 30 días.

El arquitecto municipal y el técnico municipal de Medio Ambiente han elaborado informes al respecto.

De conformidad con los informes del arquitecto municipal y del técnico municipal de Medio Ambiente, y a propuesta de la Comisión Informativa de Ordenación del Territorio, los 17 miembros que componen la Corporación, por unanimidad, acuerdan lo siguiente:

A- Ante las solicitudes de Declaración de Utilidad Pública y Autorización Administrativa de Construcción del proyecto de la línea aérea de transporte de energía eléctrica a 400 kV, doble circuito, denominada «Güeñes - Itsaso» en las provincias de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, efectuar las siguientes alegaciones, a fin de mejorar dicho proyecto y minimizar la afección de su ejecución en el entorno:

1.- El proyecto propone pasar por encima de la zona de Pagola-Loidi en línea aérea (alineaciones 48-50, torres T106, T107, T108). Desde un punto de vista naturalístico, este espacio es uno de los más interesantes de Bergara, la nueva infraestructura atraviesa aquí el corredor de enlace Urkiola / Aizkorri-Aratz / Izarraitz de la propuesta de Red de Corredores Ecológicos de la CAV, por lo que se considera que dicho efecto tendría que ser evaluado y mitigado. Asimismo, las aves protegidas corren riesgo de colisionar con la nueva infraestructura en un lugar donde se observa el vuelo de aves rapaces. Considerándolo desde una perspectiva urbana, esta zona es una cumbre o altura de monte, y tal y como se recoge en el documento inicial del anteproyecto de 2009 (pág. 72) "en la distribución de apoyos se evitan las cumbres..."

2.- La elección de la propuesta recogida en el proyecto generaría un impacto directo y considerable en viviendas aisladas rurales (caseríos) como los de Oianguren, Eguren y Belastegi-Bolu en el barrio de Basalgo; Biturtu en el barrio de Osintxu y Laudatz y Mieka en el barrio de Buruñao, entre otros.

Por lo tanto, se solicita que se modifique el trazado entre las torretas T-104 y T-107 haciendo que discurra próxima y paralela a la línea 400 kV Amorebieta – Itxaso ya existente por su lado suroeste, con lo que se evitaría la afección que se produciría con el trazado actual en los caseríos

y granja existentes en dicho recorrido (se acompaña plano en el que se detalla la propuesta de alegación).

3.- Se ratifica el punto segundo del acuerdo de alegación aprobado mediante resolución plenaria de 28 de marzo de 2011: “El Area A-43 corresponde a los terrenos ocupados anteriormente por la industria textil Hijos de Arturo Narvaiza en el Barrio de Mekolalde con la incorporación de otras parcelas situadas en la zona Norte del Area. En la UE 43-2 consolidada como suelo urbano se ordenan unos volúmenes y se reserva suelo para el paso del futuro tranvía. La línea Gueñes-Itsaso de doble circuito afecta seriamente a la futura construcción de edificios e instalaciones industriales, condicionando en gran medida el desarrollo industrial de nuestro municipio.” y se manifiesta que en el expresado entorno de Mekolalde existen varias viviendas habitadas comunitarias, generando igualmente un impacto directo y considerable sobre ellos. Considerando estas circunstancias, se reitera la solicitud de que se reconsidere el trazado con una alternativa que mejore la propuesta proyectada.

4.- Que el Proyecto tenga en cuenta las determinaciones establecidas en el Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante Decreto 177/2014, de 16 de setiembre, y en concreto lo que establece el Artículo 61.- Calificación de Usos y Actividades.

5.- Que el Proyecto detalle el cumplimiento de las condiciones recogidas en el Punto 5.- “Condiciones al proyecto” de la Declaración de Impacto Ambiental (formulada mediante Resolución de 22 de noviembre de 2012, de la Secretaría de Estado de Medio Ambiente del Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente –publicado en el BOE de 5 de diciembre–), y en concreto las condiciones referidas a la protección de la atmósfera, protección de los recursos hídricos, protección del suelo y vegetación, protección de la fauna y protección del paisaje.

6.- La referencia en el Proyecto a los accesos necesarios tanto para la construcción de la instalación como para su mantenimiento es muy escueta, y se limita a lo recogido en el Apartado 7 (Página 60 de la Memoria). En el mismo, sólo se señalan unas condiciones generales muy vagas y un criterio para la selección de accesos, según el cual la selección entre las diferentes alternativas se realiza no sólo en base a los criterios técnicos sino que se consideran también los criterios ambientales, de manera que produzca sobre el medio ambiente el menor impacto posible, y también criterios socioeconómicos, de forma que la afección al propietario también se minimice.

Examinado el Proyecto, la única información referida al trazado de los nuevos caminos es la que figura en el Anexo: Planos Parcelarios del Capítulo: Relación de Bienes y Derechos, Plano 441L003, Hojas de la 64 a la 70 inclusive, en las que se representan los trazados con dos líneas paralelas sin acotar los anchos y con una trama entre ambas líneas que figura con la indicación “Servidumbre de Paso/ Acceso”. Al parecer se utilizan los caminos existentes hasta el inicio de los nuevos ramales por los que se accederá al emplazamiento previsto para las torretas. No existe en el Proyecto ningún plano de detalle que determine anchuras, pendientes, ni soluciones constructivas de los nuevos ramales previstos ni tampoco ninguna mención a la necesidad o no de

realizar obras de mejora en los caminos existentes para facilitar el paso de los camiones y maquinarias que se vayan a utilizar para la ejecución de la obra.

En el Presupuesto del Proyecto no figura una sola partida referida a la construcción de los nuevos accesos ni a la mejora de los existentes en el caso que sea necesario. Tampoco para la reposición de los daños que se puedan causar en la fase de ejecución.

En cuanto a las medidas necesarias para la recuperación ambiental de las zonas afectadas por la nueva conducción, tampoco aparece en el Proyecto ninguna información sobre las actuaciones a realizar, ni figura en el Presupuesto ninguna partida por este concepto. Por lo tanto, se solicita que el Proyecto recoja el trazado detallado de los nuevos tramos de caminos a construir para el acceso a los emplazamientos de las torretas con indicación de los anchos, pendientes y detalles constructivos como muros, escolleras, cunetas de recogida de aguas, pavimento, etc., y también las obras de mejora que se vayan a realizar en los caminos existentes que se utilizarán hasta el inicio de los nuevos tramos. En este sentido, se solicita que en las torretas o apoyos que se ubiquen en las proximidades de caminos rurales y pistas forestales se adopten medidas de “apoyo frecuentado calzado/descalzado”.

En el contexto de lo expuesto, se propone que previo al inicio de las obras se cree una comisión de seguimiento para coordinación y seguimiento de las mismas, que tenga su desarrollo en reuniones periódicas que se establecerán antes del inicio de las obras de la marcha de la misma y de los problemas que pudieran surgir en la fase de ejecución dentro del término municipal.

7.- Que el Proyecto incluya planos con la información de las áreas más propensas a la generación de incendios y las medidas especiales de precaución previstas para su implantación en dichas áreas.

8.- Sobre todo se verán afectados los siguientes hábitats de interés [Como es habitual para el estudio de los Hábitats de Interés de la Unión Europea, se han tenido en cuenta los hábitats definidos por la Directiva de Hábitats (*Directiva 92/43/CEE del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres*) y su cartografía (del propio Ayuntamiento de Bergara, la realizada por la Universidad del País Vasco el año 2008, y la del Gobierno Vasco)]:

- 1 *Hábitat 6210 de interés comunitario, “Prados secos seminaturales con presencia de orquídeas”: sobre todo en las alineaciones 49 y 50. El daño se producirá en la fase de construcción y en la fase de explotación (transformación del suelo y ocupación).*
- 2 *Hábitat 9120 de interés comunitario, hayedos acidófilos atlánticos con sotobosque de Ilex y a veces de Taxus: afección puntual en la alineación 48.*
- 3 *Así mismo, produce afección a bosques de roble atlánticos mixtos de reseñable interés naturalístico, en la alineación 44.*

Por tanto, se solicita la presencia de un/a técnico/a competente en el lugar durante la fase de construcción a fin de reducir la afección sobre la flora protegida, proponiendo en caso necesario medidas de compensación para su conservación.

9.- Se solicita que, en el espacio por el que la línea eléctrica atraviesa la propuesta de Red de Corredores Ecológicos de la CAV, recogida en el Plan Sectorial Territorial Agroforestal de la CAV, se adopten las medidas para reducir el riesgo de colisión de la avifauna con el cableado que están recogidas en la DIA, similares a las propuestas por el Real Decreto 1432/2008.

10. Si bien en el proyecto se recoge el apartado referido a la Gestión de Residuos de Construcción y Demolición, entendemos que su desarrollo no se corresponde con el que debería tener un documento técnico de tal magnitud. Así, solicitamos que se inste a la empresa contratista responsable de la ejecución del proyecto a la redacción del correspondiente Plan de Gestión de Residuos, que dé cumplimiento a la normativa específica vigente.

B) Comunicar a la Subdelegación del Gobierno en Gipuzkoa el acuerdo que recoge las alegaciones.

Bergara, 28 de marzo de 2017

LA SECRETARIA